

Gero kinki batzuk zirela esan behar da, kinkien kontra ere dena libre dago eta. Gero, besterik ezin denean, «trágico error» bat izan direla aitortu beharko da hilketa horiek («hilketa», noski, «vilmente asesinado» eta «alevoso y cobarde crimen» gabe) eta bitartean aste eta erdi pasa bait da iluntasunean, inpaktorik ez du egiten, ez da problema.

Bai, hau dena kaos ikaragarri bat da eta ordenu piska bat jarri beharra dago. Demokrazia, giza eskubideak, Parlamentuak, autonomiak, Alderdi boltxebikeak, dena harmonizatu eta regulatu ondoren, daburduko ongixto regulaturik dauzkagu arimak eta bihotzak eta hizkuntzaje politikoa ere: ez da esan behar, Goardia Zibilak edo hiru mutil masakratu eta kiskali duela, ez dakigu nola, baina «muertos en un incidente (!) con la Guardia Civil». Eta «los sucesos del veintitrés cfe» esan behar da, larrialdi hura ere desdramatizatu eta harmonizatu egin behar bait da. Eta... Bai, badakizu: «de muerte natural» hil zen, hemen ez dago torturarik.

Hitzek berdin balio bait dute zerbait argitzeko adina iluntzeko. ■ *Joxe A. Otaegi.*

Nafarroaren eboluzioa

Nafarroa eta beronen istiluak egunkariaren lehen orrialdeetako gai dira aspaldi honetan: detentzioak, Parlamentuko burrukak, Diputazioaren jokua, etab. (Ia) denetan auzi bakarra: abertzaletasuna bai ala ez.

Gorabehera hauek eta beste hainbeste lehen mailakoak dira. Garrantzizkoak eta ezagunak. Nafarroaren euskaltzetasunaren etorkizunari begira, ezin esan kezkatzen ez nautenik. Baina ez dira beldurtzen nauten bakarrak. Are gehiago beldurtzen naute beste batzuk, hain zuzen isil-isilean igarotzen direnak, izkutuan bezala, jendearen atentzioaren argietatik at, hizki txikitari eta orrialdearen bazterrean. Abarrots gutiko bi albiste aipatuko ditut hemen, nere ustez hitz gutitan luze adierazten dutenak bata zein bestea (eta gutienez bata besteari loturik).

Nafarroan Oposen Unibertsitateak 293 milioi pezetatako subentzioa jasoko du. Bego. Ikastolak, aldiz (eskolaurre eta OHO), 177 milioi pezetatakoa. Asko da? Gutxi da? Ez dakit. Diferentzia handia da, hori bai: 116 milioi gehiago jasotzen du Oposen Unibertsitateak.

Baina bada okerragorik: Oposen Unibertsitateak iaz baino % 12,5 gehiago hartzen du. Bego. Baina *ikastolak iaz baino 123 milioi gutiago* jasoko du aurtan. Horra hor Nafarroaren eboluzioa. Ez al da kezkatzekoa? ■ *Joan Altzibar.*